

3- FUNTSEZKO SOZietateak

Gure proiektua ondo funtzionatzeko, hainbat enpresa eta hornitzaileekin harreman eta akordio estrategikoak beharko ditugu. Lehenik, aplikazioa garatzeko teknologiko enpresa bat kontratatuko dugu. Enpresa honek aplikazioa sortzeaz gain, mantentze-lanetan eta teknologia berriek ekar ditzaketen arazoei aurre egiten lagunduko digu. Ez da benetako aliantza formal bat izango, baina guretzat akordio gisa funtzionatuko du, gure proiektua hazkunde teknologikoan lagunduko duelako. Bigarrenik, tailer batekin edo frankizia-sare batekin akordio bat egingo dugu, hiri guztietan edo hiriguneetatik gertu egongo diren tailer fidagarriak izateko. Horrela, gure bezeroek beti izango dute tailer hurbil eta ziurtatua, eta gainera lehenetsuneko arreta eta prezio murriztuak jasoko dituzte. Tailerrarentzat ere abantailatsua izango da, guk bezero berriak eramango dizkiogulako.

Hirugarrenik, aseguru-enpresa batekin hitzarmena egingo dugu. Aseguru-enpresak gure jarduerari segurtasuna eskainiko dio, eta arazo edo ezustekoen aurrean irtenbide azkar eta errazak izateko aukera emango digu. Modu honetan, gure zerbitzua fidagarriagoa izango da bai guretzako bai gure erabiltzaileentzat. Bazkide eta hornitzaile hauek aukeratzekoan kontuan hartuko ditugu negozio-eredua optimizatzea, kostuak eta arriskuak murriztea, eta baliabideak modu eraginkorrean elkar banatzea. Aliantza hauek guztiak funtsezkoak izango dira gure enpresaren hazkunderako: lagunduko digute gure zerbitzua zabaltzen, kotxe gehiago eta bezero gehiago izaten, eta azkenik, aseguru-enpresak segurtasuna eta konfiantza bermatuko dizkigu.